



OIARTZUNGO UDALERRIKO BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI ETA ZUHAIZTIEN GARBITASUN, KONTSERBAZIO ETA MANTENU LANAK KONTRATATZEKO KONKURTSORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

2010 - 2012

1. XEDEA

Baldintza teknikoaren plegua honen xedea bertan zerrendatzen diren udal izaera duten parke, lorategi, urbanizazio, zuhaitzi, berdegune, bidegorri, herri bide eta zerbitzuetako eremuen lorezaintza, kontserbazio eta garbitasun lanak exekutatzerakoan bete behar diren baldintzak zehaztea da.

2. JARDUERAREN NORAINOKOA ETA ESPARRUA

2.1- Zerbitzu-jardueraren norainokoa:

Esleipendunak eman behar duen zerbitzuak kontratatzen diren berdegune publiko bakoitzean zehazten diren lanak jasoko ditu. Orokorrean ondorengo lanak izango dira:

- * Berdegune publiko guztien kontserbazio egokia.
- * Soropilen kontserbazio, garbiketa, sega eta sasi kentzea.
- * Bide bazterren garbiketa, sega eta sasi kentzea.
- * Hormen garbiketa eta sasi kentzea.
- * Heskai edo palaxuen kontserbazioa eta inausketa edo kimaketa.
- * Zuhaitzen kontserbazio eta inausketa edo kimaketa.
- * Zuhazpeko hosto eta adar hilak biltzea.
- * Zuhaxkak egoera onean mantentzea.
- * Lorontziak garbitu eta landareak mantentzea.
- * Sortzen diren hondakin guztiak bildu eta garraiatzea.
- * Egoera txarrean dauden landare, zuhaixka eta zuhaitzak kentzea.
- * Birjartzeak.
- * Lorategi berriak egitea.
- * Zuhaitzen landaketa eta birlandaketa.

Egin beharreko lanak Lorategi eta Paisaiagintzako Arauak beteaz egin beharko dira.

2.2.- Udalerri barneko ondoren zehazten diren eremuak mantenu egokia eduki ahal izateko mota desberdinetan sailkatu dira. Eremu guzti hauek plano orokorrean eta banakako fitxetan islatuak aurkitzen dira.

Ondoren, era orokorrean aipatzen dira egin beharreko lanak eta maiztasuna eremu, egitura lineal, zuhaitz eta lorontzietarako. Hala ere, horietako bakoitzaren fitxan azaltzen dira konkretuki egin behar diren lanak. Biak kontuan eduki beharko dira lanak antolatu eta gauzatzerakoan.

2.2.1.-Eremuak: hiri guneko eta udal zerbitzuetako parke, lorategi, belardi, lore multzo, eta beste landaredi eremuak.

(A) *Lehentasunezko zaintzako eremuak.* (ikus eranskinak)

Azalera: 26.918 m²



(B) Zaintza ertaineko eremuak (ikus eranskinak):

Azalera: 92.635 m²

(C) Zaintza arrunteko eremuak (ikus eranskinak):

Azalera: 62.149 m²

(D) Zaintza gutxiko eremuak (ikus eranskinak):

Azalera: 213 m²

Eremu guztien azalera osoa 181.915 m²

Eremuen mantenua.

Soropiletan eta, orokorrean, belar eremuetan, ondorengo lanak egin beharko dira gutxienez:

- A motako eremuetan: 12 mozketa urtean.
- B motako eremuetan: 8 mozketa urtean.
- C motako eremuetan: 4 mozketa urtean.
- D motako eremuetan: mozketa 1 urtean.

Inguru guztia garbi utzi beharko da mozketa bakoitza bukatu bezain laster. Soberakin guztiak bildu eta Udalak zehazten duen lekuraino garraiatzea barne kontsideratzen da A, B eta C eremuetan.

Eremu bakoitzean dauden landare apaingarri, heskai, zuhaixka eta zuhaitzen mantenu lanak egin beharko dira soropila mozten denean, arreta berezia heskai eta zuhaixketan jarriaz, beren tamaina egoki eta itxura ederra lortzeko behar diren kimaketa eta egituratze lanak burutuz. Zehazki, heskaiak, eta zuhaixken mantenua ondorengo maiztasunarekin egingo da gutxienez;

- A motako eremuetan: 6 aldiz urtean.
- B motako eremuetan: 4 aldiz urtean.
- C motako eremuetan: 2 aldiz urtean.

Esleipendunak egun heskaiek duten trazaketa eta soropilen profilak mantenuko dituzte, bere kontura izango dira lanak era desegokian egiteagatik sor daitezkeen kalte eta aldaketak.

Eremuetako zuhaitzak ere mantendu egin behar dira eta bakoitzarentzat ezartzen den alturan adarrak kendu, azpia libre uzteko.

Hartxintxarra edo antzekoa duten eremuetan (pasealekuak, bideak, eta abar) urak normaltasunez joateko moduan, putzurik sortu gabe, berregingo dira profilak, belarrik gabe mantenduko dira eta arekak eta estolda-zuloak garbitu. Behar den materiala: herbizidak eta hartxintxarra bezalakoak, Udal Zerbitzuak hornituko ditu.

2.2.2.- Egitura linealak: bide, heskai (seto), horma eta beste egitura linealak.

(A) Lehentasunezko zaintzakoak. (ikus eranskinak)

Luzera: 426,8 m

(B) Zaintza ertainekoak (ikus eranskinak):

Luzera: 13.027,2 m



(C) Zaintza arruntekoak (ikus eranskinak):

Luzera: 18.866,9 m

(D) Zaintza gutxikoak (ikus eranskinak):

Luzera: 1.766,1 m

Egitura guztien luzera osoa 34.087,1 m

Egitura linealen mantenua.

Heskai eta zuhaixken muxarratze eta inausketak:

Udal Zerbitzuen argibideak jarraituz, landareek hobeto hazteko eta ongi itxuratzeko behar diren garai eta moduan egingo dira.

Geometrikoki eratutako heskaietan ondoren zehazten den kimaketa kopurua egin beharko da. Espezie bat edo gehiago dituzten heskai informaletan inausketa edertasun estetiko ahalik eta handiena lortzeko egingo da, Udal Zerbitzu Teknikoek zehazten duten estruktura eta bolumena mantenduaz.

- A motakoetan: 6 aldiz urtean.
- B motakoetan: 4 aldiz urtean.
- C motakoetan: 2 aldiz urtean.
- D motakoetan: urtean behin.


Ahaleginak egingo dira heskaiak aurpegi paraleloak eduki dezaten, inausketa bukatu ondoren adaxka isolatu eta nabarmenik utzi gabe.

Inausi behar diren adarrak aukeratzekoan zuhaixka indartzea izango da helburu, adar lehor eta ahulak kenduaz, gaizki garatutakoak edo ingurukoei lehia egiten dizkietenak, inguruarekin orekatuak izango diren forma erregularrak sortzeko moduan. Halaber, ezusteengatik (bandalismoa, istripua, haizea eta abar) hautsitako adarrak ere moztu egingo dira.

Bideak:

Bideen arekak eta bazterrak belarrez eta sasiz garbi mantendu behar dira fitxa bakoitzean azaltzen den zabaleran. Bide batzuetan aldamen bat bakarrik garbitu beharko da eta beste batzuetan, berriz, bi aldeetatik, fitxa bakoitzean azaltzen denaren arabera.

Aldamenetako zuhaixka eta zuhaitzak ere kimatu egin beharko dira fitxa bakoitzean zehazten den zabalera eta altueran garbi mantentzeko moduan, ondorengo marrazkian azaltzen den erara:



Garbiketaren maiztasunari dagokionez, ondorengoak izango da gutxienez:

- A motakoetan: 6 aldiz urtean.
- B motakoetan: 4 aldiz urtean.
- C motakoetan: 2 aldiz urtean.
- D motakoetan: urtean behin.

Hartxintzarra edo antzekoa duten lekuetan (pasealekuak, bideak, eta abar) urak normaltasunez joateko moduan, putzurik sortu gabe, berregingo dira profilak, belarrik gabe mantenduko dira eta arekak eta estolda-zuloak garbitu. Behar den materiala: herbizidak eta hartxintzarra bezalakoak, Udal Zerbitzuak hornituko ditu.

Inguru guztia garbi utzi beharko da mozketak bakoitza bukatu bezain laster. Soberakin guztiak bildu eta Udalak zehazten duen lekuraino garraiatzea barne kontsideratzen da A, B eta C eremuetan.

Hormak:

Hormak belar, zuhaixka eta zuhaitzez garbi mantendu beharko dira, kasu bakoitzean behar den tratamenduarekin: sustraitik atera, moztu edota, hori nahikoa ez den kasuetan soilik, herbizida erabiliz. Herbizida horien erabilera, oso neurtua izan beharko du, sustantziaren ekoizleak gomendatzen duen dosi eta erara era eragin nahi den landarean bakarrik erabiliz, inguruko guztiak kaltetu gabe.

Udal zerbitzuek garbiketa horietatik salbuetsi ahal izango ditu apaingarri izan daitezkeen landare txikiak, garoak, goroldioak eta beste landare batzuk.



Garbiketaren maiztasunari dagokionez, ondorengoak izango da gutxienez:

- A motakoetan: 3 aldiz urtean.
- B motakoetan: 2 aldiz urtean.
- C motakoetan: urtean behin.

Soberakin guztiak bildu eta Udalak zehazten duen lekuraino garraiatzea barne kontsideratzen da.

Lorontziak:

Kasu bakar batzuetan egitura lineal bezala definitu dira lorontzi multzo edo luzeak. Kasu horietan Bertan dauden landare apaingarriak zaindu, belar txarrak kendu eta, orokorrean, lorontziak egoera onean mantendu beharko dira, bai landareen osasunari dagokionez, baita estetikari dagokionez ere. Lorontzien kanpoaldea eta bere inguru hurbila garbi eta belarrik gabe mantendu beharko da.

2.2.3.- Zuhaitzak

(A) *Lehentasunezko zaintzakoak.* (ikus eranskinak)

Kopurua 307

(B) *Zaintza ertainekoak* (ikus eranskinak):

Kopurua 282

(C) *Zaintza arruntekoak* (ikus eranskinak):

Kopurua 443

Zuhaitz ale kopurua 1.032

Atxikitako planoetan eremu, egitura lineal eta puntu bezala adierazita dauden leku guztietan dauden zuhaitzak mantendu egin beharko dira, hau da, beheko eta enbor nagusiko altsumak kendu, hilda edo egoera oso txarrean aurkitzen diren adarrak moztu, zuhaitz azpiko adarrak kimatu fitxa bakoitzean azaltzen den alturaraino libre uzteko, txorko edo alkorkeak eta zuhaitz ingurua garbi mantendu eta, orokorrean zuhaitzak osasun eta estetika egoera onean mantendu.

Zuhaitzen inausketa edo kimaketari dagokionez, ondoren azaltzen diren maiztasunarekin egin beharko dira:

- A motakoetan: urtean behin.
- B motakoetan: bi urtetik behin.
- C motakoetan: lau urtetik behin (fitxetan “*zuhaitza tamaina txikian mantendu*” esaten den kasuetan).

Kimaketa Lorategi eta Paisaiagintzako Arauak zehazten duten erara egin beharko dira, beti ere zuhaitzen osasuna ahalik eta gutxien kaltetuz, estetikoki egitura egokia emanaz eta kaleko eta etxeetako biztanleriari trabarik egingo ez dion moduan.

Soberakin guztiak bildu eta Udalak zehazten duen lekuraino garraiatzea barne kontsideratzen da.

2.2.4.- Lorontziak:

Denak (D) motakoak bezala sailkatu dira.
Kopurua 70

Planoetan ikus daitekeen bezala, hirigunean barreiaturik zenbait lorontzi daude. Horien guztien mantenua ere egin beharko da. Bertan dauden landare apaingarriak zaindu, belar txarrak kendu eta, orokorrean, lorontziak egoera onean mantendu beharko dira, bai landareen osasunari dagokionez, baita estetikari dagokionez ere. Lorontzien kanpoaldea eta bere inguru hurbila garbi eta belarrik gabe mantendu beharko da.

2.2.5.- Osagai apaingarriak

Udal instalakuntza barneko lorontziak: 10 ale gutxi gorabehera.

2.3.- Udalak aipatutako eremuak egun dauden egoeran kontratatuko ditu, denborak eta zaintzak eragingo dituen hobekuntzekin, noski, Udal ardura-eremua handituko duten obra berri, handitze, urbanizazio harrera edo edozein motatako jabetzeengatik egiten diren parke berri, berdegune eta zuhaitz-lerroak jasotzera derrigortuta egongo da esleipenduna, esleitutako beste eremuen baldintza berdinetan, beti ere horrela erabakitzen badu Udalak, dauden egoeran, nolana hiko dela, eta prezio berdinean, beti ere handitzeak kontratatutako Baldintza Teknikoen Pleguan zehazten diren eremu guztien azalera % 8a baino gehiago suposatzen ez duen bitartean

Ehuneko hori gaindituko balitz, egungo prezioaren arabera, handitzen den azalaren proportzioa aplikatuko zaio gehiegizkoaren aurrekontuari, beste baldintza tekniko eta administratiboak bere horretan mantenuz.

Urbanizazioa egin ez delako, obrak direlako edo beste arrazoen batengatik egiten ez diren lanak esleitutako aurrekontutik kendu egingo dira, esleipendunak eskaintzan jarritako prezioetan, beti ere azalera % 8a baino gehiago suposatzen badu.

3.- LANEN ANTOLAKETA

Esleipendunak, ondorio guztietarako bere gain dituen langileri egokiarekin, bai kopuruz eta bai gaitasunez, eta era guztietarako makineria eta lanabesekin, gutxienez plegu honetan zehazten diren lanaz arduratu beharko du, behar den garai eta eratan, Oiartzungo Udal Zerbitzuen irizpideak jarraiki

3.1 BETE BEHARREKO EGINKIZUNAK

Lorezaintza botanikoki eta estetikoki era egokian garatzeko lanak arlo bakoitzean zehaztuko diren baldintza partikularretan egingo dira. Kontserbazio eta garbiketa lan hauek ondorengoak dira:

- 3.1.1.- Belarra segatzea.
- 3.1.2.- Belarra berrereitea.
- 3.1.3.- Heskai eta zuhaixkak muxarratu eta inautzea
- 3.1.4.- Pasealeku eta egonlekuetako hartxintxarra profilatu edo findu, zabaldu eta belarrik gabe mantentzea.
- 3.1.5.- Aitzurtu eta joratu.
- 3.1.6.- Aratu.
- 3.1.7.- Berdeguneen garbiketa eta hondakin guztiak garraiatzea.
- 3.1.8.- Tratamendu fitosanitarioak.
- 3.1.9.- Heskaien trazaketaren mantenua eta soropilak profilatzea.
- 3.1.10.- Landaketa aurretik loreak, zuhaixkak eta zuhaitzak deskargatze, gordetze eta mantenua.



- 3.1.11.- Lore, zuhaixka eta zuhaitzak landatzea
- 3.1.12.- Zuhaipeak garbitzea eta hosto bilketa osagarria.
- 3.1.13.- Hormak belar, sasi, huntz, zuhaitzik gabe mantentzea.
- 3.1.14.- Bide bazterretako arekak garbitzea.
- 3.1.15.- Bide bazterretako belar, sasi eta zurkiak desbrozatu eta garbi mantentzea.
- 3.1.16.- Kaleko lorontziak mantentzea.
- 3.1.17.- Udal instalakuntzetan dauden lorontziak mantentzea.
- 3.1.18.- Zuhaitzak inausi edo kimatzea.

- 3.1.1.- Soropilak segatzea.

Lorategia itsustea edo soropila kaltetzea suposatuko duen altuerara iristen utzi gabe behar den maiztasunarekin egin beharko da, goian aipatutako gutxienezko maiztasunarekin. Segatzeak urte guztian banatu beharko dira, baina belarra hazten den denboraldietan maiztasuna areagotuz, etenaldi luzerik egin gabe.

Soropila edo inguruetan egon daitezkeen landare inbaditzaileak desagerraraztea. Momentu honetan, Oiartzuni dagokionez, hauek kontsideratzen dira inbaditzaileak: *Cortaderia selloana*, *Reynoutria japonica*, *Buddleja davidii*, *Baccharis halimifolia*, *Robinia pseudacacia*, *Phytolacca americana*, *Paulownia tomentosa*.

Soberakinak aratu, garbitu eta garraiatzea barne kontsideratzen dira.

- 3.1.2.- Soropilen berrereitea eta berdegune berrien sorrera.

Berdegune berriak sortu behar direnean eta osatu gabeko edo higitutako belardiak dauden bakoitzean, udazkenaren hasieran edo udaberrian soropila erein edo berrerein egin beharko da. Egin beharreko lanak hauek izango dira:

- 3.1.4.1 Berezko belarrak kentzea, bai eskuz, bai baliabide mekanikoen bidez, bai herbizida bidez.
- 3.1.4.2.- Motokultorea pasa eta lurrari soropilentzat berariazkoa izango den askatze moteleko ongaria zabaldu beharko da, 50 gr. metro karratuko.
- 3.1.4.3.- Eremua aratu leundu arte.
- 3.1.4.4.- Minio edo Morkit (Bayer) hautsarekin nahastutako belar hazia zabaldu.
- 3.1.4.5.- Hazia zentimetro bat arterainoko lodiera duen lurrustelarekin estali.
- 3.1.4.6.- Alferra pasa
- 3.1.4.7.- Ureztatu.
- 3.1.4.8.- Ureztatu eta moztu Udaleko Zerbitzuek soropila ezarrita edota errekuiperatutzat eman arte.
- 3.1.4.9.- Behar diren itxidurak jarri soropila erabat ezarri arte.

- 3.1.3.- Heskai eta zuhaixken muxarratze eta inausketak.

Udal Zerbitzuen argibideak jarraituz, landareek hobeto hazteko eta ongi itxuratzeke behar diren garai eta moduan egingo dira. Gorago aipatu dira urtean zehar banatu behar diren



inausketak.

Espezie bat edo gehiago dituzten heskai informaletan, mugatzeko edo banantzeko erabiltzen direnetan eta berdeguneetan landatuta dauden zuhaixketan, inausketa edertasun estetiko ahalik eta handiena lortzeko egingo da, Udal Zerbitzu Teknikoek zehazten duten estruktura eta bolumena mantenduaz.

Ahaleginak egingo dira heskaiak aurpegi paraleloak eduki dezaten, inausketa bukatu ondoren adaxka isolatu eta nabarmenik utzi gabe.

Inausi behar diren adarrak aukeratzekoan zuhaixka indartzea izango da helburu, adar lehor eta ahulak kenduaz, gaizki garatutakoak edo ingurukoei lehia egiten dizkietenak, inguruarekin orekatuak izango diren forma erregularrak sortzeko moduan. Halaber, ezusteengatik (bandalismoa, istripua, haizea eta abar) hautsitako adarrak ere moztu egingo dira.

- 3.1.4.- Pasealeku edo egonlekuetako hartxintxarra, dagoen kasuetan, profilatze edo fintzea eta zabaltzea

Urak normaltasunez joateko moduan, putzurik sortu gabe, berregingo dira profilak eta arekak eta estolda-zuloak garbi mantenuko dira. Behar den materiala: herbizidak eta hartxintxarra bezalakoak, Udal Zerbitzuak hornituko ditu.

- 3.1.5.- Jorratzea.

A eta B motatako soropiletan belar txarrak laborantza zainketa bidez edo eskuz kendu beharko dira, herbizida Udal Zerbitzuek horrela erabakitzen dutenetan erabiliko da soilik.

Lore multzoak sarri jorratuko dira, belar txarrik hazten utzi gabe eta lurzoruaen estruktura egokia mantenuz. Maiztasuna eguraldiaren arabera izango da.

Zuhaitz eta zuhaixkak bi aldiz jorratuko dira, behin udaberrian eta beste behin udazkenean, 12 eta 15 cm bitarteko sakontasunarekin, zainak ukitu gabe.

Txorkoetako belarrak behar den guztietan atera egin beharko dira, eta sekula ez moztu. Herbizidak ere erabil daitezke Udal Zerbitzuek baimenduta.

Zuhaitz-oinak enborraren 30 cm-ko inguruan inongo landarerik gabe egon beharko dira. Pasealekuetan zuhaitzen enborra eta oina adaxkez garbi mantenu beharko da beti, pertsonen altueraraino gutxienez.

- 3.1.6.- Aratzea.

Lurra tinkotu ez dadin, lurzoruak maiz aratuko dira eta bereziki jorratu ondoren.

- 3.1.7.- Garbitzea.

Esleipendunaren kargu dauden langile guztiak arreta etengabe eta zorrotza eduki beharko dute esleitutako eremu guztiak garbi mantentzen.

Lan hau berezko belarrak (belar txarrak), hostoak, segatze hondarrak, inausketa adaxkak kentzea izango da, baina baita ere edozein arrazoiengatik bota daitezkeen paper, hondakin eta zaborrak. Ahal den neurrian hondakin organikoak (belarra, adarrak, hostoak) eta inorganikoak (paperak, zorroak, latak, plastikoak eta abar) bereizi eta bananduta bilduko dira.

Esleipendunaren betebeharra ez da material hauek erraztatu, bildu eta pilatzea soilik, baizik eta berehala bere kabuz edota bere kontura erretiratu eta udal zerbitzuek esandako lekura garraiatuaz osatu beharko du.

Txorkoetan ere edozein gauza arrotz garbitu egin beharko da.

Berdeguneetan ekintza kultural, gizarteko, kiroleko edo beste edozein motatako ezohiko ekintzak egiten direnetan, derrigorrezkoa izango da ekintza bukatu bezain pronto eremu guztia garbitzea, horrek ez



du esleipen prezioaren igoerarik suposatuko.

-3.1.8.- Tratamendu fitosanitarioak

Esleipenduna derrigortuta egongo da azaldu daitekeen edozein gaitz edo izurriteen aurkako prebentziosko tratamendua dagokion urte-sasoian egitea, baita gaitz edo izurritea behin zabaldu egin den kasuetan hori erabat desagerraraztea zuzendutakoak ere. Tratamendu hauetan erabiliko diren baliabide, produktu eta prozedurak modernoak eta eraginkorrak izango dira, ez dira ez toxikoak, ez gogaikarriak izango ez pertsonentzat, ezta izurritea jasaten ari den eremuz kanpoko berdeguneetako basa-faunarentzat ere.

Tratamendua bizilagunei kalterik sortuko ez dien orduetan egingo da eta beti ere haizerik ez dabilenean.

Produktuak Oiartzungo Udaleko Zerbitzuek hornituko dituzte.

- 3.1.9.- Heskaien trazaketaren zaintzea eta soropilen profilatzea.

Esleipendunak egun heskaiak duten trazaketa eta soropilen profilak mantenuko dituzte, bere kontura izango dira lanak era desegokian egiteagatik sor daitezkeen kalte eta aldaketak.

- 3.1.10.- Deskarga, pilatze eta zaintzea.

Esleipendunak bere kontura egingo ditu Oiartzungo Udalak erosi eta geroago landatu behar diren lekura eramateko gordetzen dituen elementu begetalen deskarga, pilatze eta manipulazio lanak

Era berean eta gordeta dauden bitartean, esleipendunak elementu begetal horiek kontserbatzeko lanak bere gain izango ditu.

- 3.1.11.- Lore, zuhaixka eta zuhaitzak landatzea

Esleipendunak Udal Zerbitzuek erabakitzen dituzten lore, zuhaixka eta zuhaitzak landatzeko behar diren lan eta bitartekoak jarriko ditu. Udalaren kontura izango da landareen hornidura.

- 3.1.12.- Oihanpeen garbiketa eta hosto bilketa.

Zuhaitz azpiko eremuak (atxikitako planoetan eremu bezala azaltzen direnak) eroritako hostoz, sasiz, hildako egurrez eta, orokorrean, orbelez garbi mantendu beharko dira. Hondarrak bildu eta garraiatzea barne kontsideratzen da.

- 3.1.13- Hormak belar, sasi, huntz, zuhaitzik gabe mantentzea.

Hormak belar, zuhaixka eta zuhaitzez garbi mantendu beharko dira, kasu bakoitzean behar den tratamenduarekin: sustraitik atera, moztu edota, hori nahikoa ez den kasuetan soilik, herbizida erabiliz. Herbizida horien erabilera, oso neurtua izan beharko du, sustantziaren ekoizleak gomendatzen duen dosi eta erara era eragin nahi den landarean bakarrik erabiliz, inguruko guztiak kaltetu gabe.

- 3.1.14- Bide bazterretako arekak garbitzea.

Bide bazter bakoitza garbitzen denean arreta berezia jarriko da arekak garbi mantentzeko. Ostoa, belar, adar, lur, harri eta, orokorrean, uraren bere bidea oztopatuko duen beste edozein gauza kendu eta bilduaz. Hondakin guztiak bildu eta garraiatzea esleipendunaren kontura izango da.

- 3.1.15.- Bide bazterretako belar, sasi eta zurkiak desbrozatu eta garbi mantentzea.

Bideen arekak eta bazterrak belarrez eta sasiz garbi mantendu behar dira fitxa bakoitzean azaltzen den zabaleran. Bide batzuetan aldamen bat bakarrik garbitu beharko da eta beste batzuetan,



berriz, bi aldeetatik, fitxa bakoitzean azaltzen denaren arabera.

Alboetako zuhaixka eta zuhaitzak ere kimatu edo kendu egin beharko dira fitxa bakoitzean zehazten den zabalera eta altueran bidea eta aldamenak garbi mantentzeko moduan.

3.1.16.- Kaleko lorontziak mantentzea.

Hiriguneetan barreiatuta dauden lorontzien mantenua egin beharko da. Bertan dauden landare apaingarriak zaindu, belar txarrak kendu eta, orokorrean, lorontziak egoera onean mantendu beharko dira, bai landareen osasunari dagokionez, baita estetikari dagokionez ere. Lorontzien kanpoaldea eta bere inguru hurbila garbi eta belarrik gabe mantendu beharko da.

- 3.1.17.- Udal instalakuntzetan dauden lorontziak mantentzea.

Atal honetan Udal instalakuntzetan dauden barrengo landareen garbitasuna eta kontserbazioa sartzten da. Ondorengo lanak barneratzen ditu: landaketaz arrotz diren elementuak garbitzea, landare beraien garbiketa, behar dituzten mozketa eta inausketak, ureztatzea, ongarritzea eta landare apaingarrien ordeztzea, hau dena hilabetean behineko gutxieneko maiztasunarekin elementu apaingarri hauek dituzten udal instalakuntza bakoitzean.

- 3.1.18.- Zuhaitzak inausi edo kimatzea.

Atxikitako planoetan eremu, egitura lineal eta puntu bezala adierazita dauden leku guztietan dauden zuhaitzak mantendu egin beharko dira, hau da, beheko eta enbor nagusiko altsumak kendu, hilda edo egoera oso txarrean aurkitzen diren adarrak moztu, zuhaitz azpiko adarrak kimatu fitxa bakoitzean azaltzen den alturaraino libre uzteko, txorko edo alkorkeak eta zuhaitz ingurua garbi mantendu eta, orokorrean zuhaitzak osasun eta estetika egoera onean mantendu.

Zuhaitzen inausketa edo kimaketari dagokionez, fitxa bakoitzean azaltzen den maiztasunarekin egin beharko da. Urtero kimaketa hori urriaren 12a pasa bezain laster hasiko da egiten eta jarraian, denak bukatu arte. Lehenengo kimatu beharrekoak albo edo platanoak (*Platanus hispanica*) izango dira eta ondoren ezki (*Tilia tomentosa*) eta beste zuhaitz espezieak.

Kimaketa Lorategi eta Paisaiagintzako Arauak zehazten duten erara egin beharko dira, beti ere zuhaitzen osasuna ahalik eta gutxien kaltetuz, estetikoki egitura egokia emanaz eta kaleko eta etxeetako biztanleriari trabarik egingo ez dion moduan.

Soberakin guztiak bildu eta Udalak zehazten duen lekuraino garraiatzea barne kontsideratzen da.

3.2.- BIRJARTZEA

Atal honetan bere apaingarri izaera galdu edo gutxitu duten landare iraunkor edo denboraldi batekoak, zuhaixkak, zuhaitzak eta soropilak birjartzeko, berritzeko edo berrereiteko lanak biltzen dira. Lan guzti hauek esleipendunaren kontura izango dira erabat landareen heriotza edo egoera txarra ureztatze akatsak, segatze kalteak, tratamendu ezak edo berak hornitutako landarean birjartzekoan izandako akatsak sortutakoak direnean.

Baldintza hauek ematen ez direnean, Udalak hornituko du elementu begetalez esleipendunak landatu ditzan.

- 3.2.1.- Zuhaitz eta zuhaixkak

Esleipendunak hilda dauden edo Udal Zerbitzuek kentzea egokitzen jotzen dituen zuhaitz eta zuhaixkak bota egin beharko ditu zerbitzu horiek esandako eran, era berean derrigortuta dago zuhaitz horiei Udalak egokitzen jotzen duen erabilgarritasuna ematera.

Esleipendunaren gain izango dira parke, lorategi eta kaleetako zuhaitz edo zuhaixkak ordeztzea edo berritik landatzea. Landatu beharreko zuhaitzak Udalaren kontura izango dira.

Esleipendunak zuhaitz eta zuhaixkak landatzeko lanak Oñartzungo Udaleko Zerbitzuek adierazitako aginduen arabera egin beharko ditu eta zerbitzu hauek adierazi beharko dute kasu bakoitzean komenigarritzat jotzen dituzten babes, zuzenketa, lur aldaketa, landaketa garai eta abar.

- 3.2.2.- Lore-parterreak.

Denboraldi baterako landareei dagokionez, birlandaketa esleipendunaren kontura izango da eta udazkenean eta udaberrian egingo da lehendik zegoen azalera eta dentsitatean. Udal Zerbitzuek zehaztuko dute zein espezie erabili eta beraiez hornituaz, bai zuzenean, bai esleipendunaren bitartez. Era berean, zerbitzu horiek lore-parterreak handitu edota berriak sortu ahal ditzake. Horrelakoetan esleipendunaren kargu izango dira horiek gauzatzeko lanak.

- 3.2.3.- Belardi eta soropila eremuak

Berritu beharko diren eremuak kontratatutako azalera guztiaren 1/10i dagokiona izan beharko du gehienez, 3.1.2.- Soropilen berrereitea eta berdegune berrien sorrera deituriko atalean azaltzen den bezala arituz

3.3.- INAUSKETA

Inausketa beti garai egokian egin beharko da eta ebakuntzak garbiak eta adarrak tamaina handikoak direnean orbaingarriarekin tratatuak izan beharko dira.

Kontuan ondorengo edukia beharko da:

- A) Heskaiak egituratzen dituztenak salbu, koniferoak ez dira inausi behar, adar puntuen pintzamenduak eta hildakoak kentzea egin daitezke soilik.
- B) Diametroan 10 cm. baino gehiago dituzten adarrak moztea saihestu egin behar da eta, hala beharrez gertatuko balitz, berehala fungizida-horbaigarri bat eman igurtziko zaio.
- C) Udaberrian loratzen diren zuhaitz eta zuhaixkak lorea pasa bezain laster inausi daitezke.
- D) Udan loratzen diren zuhaitz edo zuhaixkak neguan inausi daitezke.
- E) Hostotza apaingarria duten zuhaitzak eta milazkak (tamariz) udazkenean inausiko dira.
- F) Topiaria erako formak garai begetatiboan inaustea hobe da eta adaxkaren bat 3 cm nabarmentzen denean.
- G) Inausketaren helburua landarearen zati guztientzat ahalik eta aireztatze eta eguzkitze handiena lortzea izango da.
- H) Behin betirako mozten diren adarrak, lotunetik ahalik eta gertuen egin beharko dira.
- I) Inausketatik sortzen diren egurrak zatitu, lotu eta zabortegira edo Udal Zerbitzuek erabakitzen duten lekura eraman beharko dira moztu ondorengo egunean.
- J) Inausterakoan hildako adar eta lehortutako zati guztiak kendu beharko dira.
- K) Zuhaixka eta denboraldi baterako landareen lore zimelak kendu egin beharko dira, bere fruituarengatik apaingarriak direnak salbu.



Hiru inausketa mota bereiz daitezke:

- Egituratzekoak
- Mantenukoak
- Gaztetzekoak.

Egituratzeko inausketa.- Zuhaitz gazte eta landatu berrietan, landarearen pisua eutsiko duen egitura tinko bat lortu arte, egiten dena da.

Mantenuko inausketa.- Zuhaitza bere ezaugarriak, itxurari, loraketari eta abarri dagokionez, mantentzeko egiten dena da

3.4. BESTE JARDUERA BATZUK

3.4.2. Auzoetako jaiak

Oiartzungo auzo bakoitzean, bertako jaiak hasi aurretik plegu honetan azaltzen diren eremu guztiak eta Udal Zerbitzuek horrela agintzen dituenak egoera ezin hobetan egon beharko dira. Hauek dira jai horien gutxi gorabeherako datak (asteburua nola datorrenaren arabera aldatzen dira):

Altzibar	Ekainaren 29a
Arragua	Maiatzeko 3. asteburua
Elizalde	Abuztuaren 3a
Ergoien	Ekainaren 13a
Gurutze	Abuztuaren 28a
Iturriotz	Uztailaren 25a
Karrika	Abuztuaren 15a
Ugaldetxo	Irailaren 29a

3.4.2. Hilerria

Hilerrian egin beharreko lanak ondorengo datak kontuan izan beharko ditu, garai horietan ahalik eta egoera onenean edukitzeko:

- Santu Guztien eguna (azaroaren 1a).
- Gabonak (abenduarien 20a).
- Oiartzungo jaiak (abuztuaren 3a).

3.4.3. Ugaldetxoko futbol zelaia

Futbol zelai inguruko lanak egiterakoan kontuan izan beharko da denboraldia ekainaren 20 inguruan bukatzen dela eta abuztuaren 20 inguruan hasi. Azkeneko data honetan zelaiaren inguru guztia egoera oso onean aurkitu beharko da.



3.5. LARRIALDI EGOERETAKO JARRERA

Uholdeek, haize edo elurte bortitzak, luiziak edo beste edozein ohiz kanpoko hondamendi egoerak sortutako larrialdietan esleipendunak dituen giza baliabide eta material guztiak jarri beharko ditu Oiartzungo Udalaren eskura, Babes Zibileko Zerbitzuekin batera, ahalik eta denbora gutxienean egoera horien ondorioak gutxitzen saiatzeko helburuarekin.

4.- OBRA BERRIAK ETA HOBEKUNTZAK

Esleitutako eremuetan Udalak askatasun osoa edukiko du bai hobekuntzak, bai obra berriak egiteko.

Era horretan, lore multzo berriak sor ditzake, soropila berriak, zuhaitz berriak edo heskai berriak landatu, birlandatu edo kendu, hiri altzariak jarri edo kendu eta, orokorrean, egokiak ikusten eta Udal Zerbitzuek ontzat ematen dituzten ekintza guztiak burutu.

Esleipendunak egoki deritzon hobekuntza eta obra berriak aditzera emango dio Udalari, baina ezin izango du kontserbatu behar dituen elementuen trazaketa edo ezaugarriak aldatuko duen hobekuntza edo obra berririk egin, Oiartzungo Udaleko Zerbitzuek espresuki baimendutakoak izan ezik.

Eskaintzak aurkezterakoan Oiartzungo lorategi eta, orokorrean, berdeguneen osasun egoera, estetika eta mantenu lanak hobetu ditzaketen proposamenak aurkeztea bereziki baloratuko da. Era berean, esleipendunak kontratuak irauten duen bitartean proposamen horiek egin beharko dio Udal Zerbitzuei, horiek baloratu eta erabakiak har ditzaten.

5.- ZERBITZUA EMANGO DUEN PERTSONALA.

Plegu honen baldintzak bete ahal izateko adina pertsonal eduki beharko du esleipendunak. Langileria buru eginaz 1. mailako edo goreneko ofizial bat egon beharko du eta honek egingo du Oiartzungo Udaleko Zerbitzuekiko bitartekaritza taldearen arduradun gisa.

Lehiakide bakoitzak proposatzen duen pertsonalaren dedikazioa eta maila azaldu beharko du. Oiartzungo Udaleko Zerbitzuek esleitutako lanak egiteko egokia ez dela kontsideratzen duen pertsonalaren aldaketa proposa dezake.

Enpresa esleipendunaren langileria ez du inongo ustezko kasuetan loturarik edota lan erlaziorik, ez kontratukorik, ez funtzionalik, ezta beste edozein eratakorik, Oiartzungo Udalarekiko eta enpresa horrek gai honi buruz jakinaren gainean eduki beharko du pertsonala, zirkunstantzi hau espresuki azaldu beharko du egiten diren langileen kontratuetan.

Udalak bere Zerbitzuen bitartez eska dezake langileria zerbitzutik kanpo uzteko edota dagokion zigorra jartzeko horretarako arrazoiak ematen dituenean.

Langile guztiak nortasun txartelez hornituta joan beharko dute. Esleipendun enpresak bere langileria, behar den bezala, Segurtasun Sozialean alta emana edukitzea hitzeman beharko du. Halaber, derrigortuta egongo da Udalari behar den dokumentazio guztia ematera aipatutako betebeharrak justifikatzeko.

Lan taldearen arduradunak urteko plana idatziz aurkeztu beharko dio Udal Zerbitzuen Buruari eta bera izango da eginkizunak betetzerakoan sor daitezkeen arazo guztiak erabakiko dituen. Halaber, deitutako bakoitzean bertan izan beharko du inongo aitzakiarik gabe. Hileroko maiztasunarekin egindako lan, material eta lanean aritu den pertsonal eta Udal Zerbitzuek egokitzen jotzen duten beste edozein datu eta gorabeheraren berri eman beharko du idatziz. Hala ere, Udal Zerbitzuburuak nahi duen bakoitzean zerbitzua ikuskatzeko eskubidea izango du eta horretarako taldearen arduraduna beti aurkitzeko moduan egon beharko du.

6.- INSTALAKUNTZAK.

Esleipendunak langileen beharretarako, makineria eta lanabesak gordetzeko eta landareak, ongarriak, produktu fitosanitarioak eta lorezaintzako beste materiala behar bezala gordetzeko adina izango diren instalakuntzak eduki beharko ditu.

7.- MATERIAL ETA LANABESAK.

Esleipendunaren kontura izango da edozein motatako material, makineria eta lanabesen eskuratzea eta, baita ere kontratuak irauten duen bitartean funtzionamendu egoera ezin hobean edukitzeko behar diren konponketa, mantenu eta kontserbazio gastuak. Udalak ulertuko du proposamenean eskainitako materiala zerbitzua betetzeko nahikotzat jotzen duela lehiakideak eta, horrela izango ez balitz, esleipendunak eskuratu beharko du, bere kontura, zerbitzua ongi betetzeko beharrezkoa.

Makina guztiak kontserbazio eta garbitasun egoera ezin hobean aurkitu beharko dira beti.

8.- IBILGAILUAK.

Lehiakideak zerbitzuan erabiliko duten material mugikor guztia zehaztu beharko dute. Lehiakideek eskaintzen duten material, ibilgailu eta makineria erabilpen eta kontserbazio egoera ezin hobean aurkitu beharko da eta Udal zerbitzuek baztertu ditzake baldintza hauek betetzen ez direnean. Hauetan esleipendunak egoera egokian dagoen beste batekin ordeztu egin beharko du.

Esleipendunarentzat debekatuta egongo da trakzio mekanikodun ibilgailurik parkeetan sartzea, kontserbazio lanetarako (ongariztatzea, produktuek ateratzea, lurra edo hartxintxarra zabaltzea eta abar) ezinbestekorik ez balego salbu. Kasu hauetan kalterik sortuko ez duten ibilgailu arinekin egin beharko da eta, beti ere, Udal Zerbitzuen baimenarekin.

9.- ZERBITZUKO METODOLOGIAN ALDAKETAK

Oiartzungo Udalak, esleipenduna aurrez entzun ondoren, egokitatzat jotzen dituen adina aldaketa sar ditzake zerbitzua betetzeko ezarrita dagoen metodologian, beti ere prestazioaren balorazio ekonomikoa mantenuaz.

10.- HOBEKUNTZAK

Eskaintzak aurkezterakoan Oiartzungo lorategi eta, orokorrean, berdeguneen osasun egoera, estetika eta mantenu lanak hobetu ditzaketen proposamenak aurkeztea bereziki baloratuko da. Era berean, esleipendunak kontratuak irauten duen bitartean proposamen horiek egin beharko dio Udal Zerbitzuei, horiek baloratu eta erabakiak har ditzaten.

11.- DOCUMENTAZIO GRAFIKOA.

Plegu honetan zehaztutako informazioa atxikia doan dokumentazio grafikoarekin osatzen da.